

ARIKETAK

- 1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena(k) edo egokiena(k):
- a) **Segundo** batzuk barru iritsiko da helmugara.
b) **Segundu** batzuk barru iritsiko da helmugara.
 - a) Harategira joan eta berrehun **gramo** pernil eskatu zituen.
b) Harategira joan eta berrehun **gramu** pernil eskatu zituen.
 - a) **Minutu** batzuen buruan Baigorri izanen gara.
b) **Minuto** batzuen buruan Baigorri izanen gara.
 - a) **Testo** horiek goitik behera orraztu behar dira, datorren astean argitaratuko badira.
b) **Testu** horiek goitik behera orraztu behar dira, datorren astean argitaratuko badira.
 - a) **Zirkulua**, azken batean, zirkunferentzia batek mugatzen duen eremua besterik ez da.
b) **Zirkuloa**, azken batean, zirkunferentzia batek mugatzen duen eremua besterik ez da.
 - a) Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 4. **kapituluan** ageri da zuk aipatutako auzia.
b) Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 4. **kapituloan** ageri da zuk aipatutako auzia.
 - a) Hain da tematia, ezen **argumenturik** onenak ere ez baitio iritzia aldaraziko.
b) Hain da tematia, ezen **argumentorik** onenak ere ez baitio iritzia aldaraziko.
 - a) **Organo** hori arduratzen da diru laguntzak esleitzeaz.
b) **Organo** hori arduratzen da diru laguntzak esleitzeaz.
 - a) **Esklabotza** gizarte egituraren euskarrietariko bat izan zen Grezia klasikoan.
b) **Esklabutza** gizarte egituraren euskarrietariko bat izan zen Grezia klasikoan.
 - a) **Karguaz** jabetu arte, ezin izango du erabakirik hartu.
b) **Kargoaz** jabetu arte, ezin izango du erabakirik hartu.
 - a) **Artxibu** horiek ezinbestekoak dira XIX. mendeko iraultzak aztertu ahal izateko.
b) **Artxibu** horiek ezinbestekoak dira XIX. mendeko iraultzak aztertu ahal izateko.
 - a) Luzaroan jardun genuen karta **jokoan**, baina azkenean irabazi ziguten.
b) Luzaroan jardun genuen karta **jokuan**, baina azkenean irabazi ziguten.
 - a) Arazoa konpontzekotan, **kaskoak** hautsi behar izango ditugu.
b) Arazoa konpontzekotan, **kaskuak** hautsi behar izango ditugu.

A R I K E T A K

14. a) **Subjektoaren** eta aditzaren arteko komunztadura beti egiten du gaizki.
b) **Subjektuaren** eta aditzaren arteko komunztadura beti egiten du gaizki.
15. a) Ikaragarri gustatzen zaio **adjektibo** kalifikatzaileak erabiltzea, inolako argudiorik eman gabe.
b) Ikaragarri gustatzen zaio **adjektibu** kalifikatzaileak erabiltzea, inolako argudiorik eman gabe.
16. a) **Instituto** horretako ikasle batzuek *mobbing* arazoak jasan behar izan dituzte.
b) **Instituto** horretako ikasle batzuek *mobbing* arazoak jasan behar izan dituzte.
17. a) Zenbat eta **produktu** merkeagoak, orduan eta txarragoak.
b) Zenbat eta **produktu** merkeagoak, orduan eta txarragoak.
18. a) Gerora gertatu zena jakinda, ez dut uste **kalkuloak** ondo egin zituenik.
b) Gerora gertatu zena jakinda, ez dut uste **kalkuluak** ondo egin zituenik.
19. a) **Konpromisorik** hartu ezean, ez dira inora ere iritsiko.
b) **Konpromisurik** hartu ezean, ez dira inora ere iritsiko.
20. a) Azterketan **puntu** larregi atera zituen eta horrek ez nau batere lasaitzen.
b) Azterketan **puntu** larregi atera zituen eta horrek ez nau batere lasaitzen.
21. a) Akademiko horrek ez zeukan euskal **azentorik** batere.
b) Akademiko horrek ez zeukan euskal **azenturik** batere.
22. a) Gasteiz etorbideko dendarik gehienetan **errotulu** argidunak dituzte.
b) Gasteiz etorbideko dendarik gehienetan **errotulo** argidunak dituzte.
23. a) Ikastaroan idazketari buruzko zenbait **kontzepto** argitu zituzten.
b) Ikastaroan idazketari buruzko zenbait **kontzeptu** argitu zituzten.
24. a) Ikasle horiek **errespetu** falta ikaragarria azaldu zuten ingeles eskolara sartu ziren aurreneko egunean.
b) Ikasle horiek **errespeto** falta ikaragarria azaldu zuten ingeles eskolara sartu ziren aurreneko egunean.



Esaldi hauetarik bat gaztelaniaren kalkoa da. Gai honi buruzko azalpenak Juan Garziaren “Erdarazko ezker-izenondoan euskarazko baliokideak” artikuluan edo Kultura Sailak argitaratutako *Kalko okerrak* liburuan aurki ditzakezue. Beraz, zein da zuzena edo egokiena?

1. a) Albiste hori komunikabide desberdinetan agertu zen behin eta berriz.
b) Albiste hori hainbat komunikabidetan agertu zen behin eta berriz.
2. a) Herrira iritsi eta denda desberdinetan helbideaz galdetzen hasi zen.
b) Herrira iritsi eta zenbait dendatan helbideaz galdetzen hasi zen.
3. a) Eleberri horrek oso zati desberdinak ditu: aurrenekoa, lasai-lasaia eta atsegina, eta, bigarrena, bizi-bizia eta gozagaitza.
b) Eleberri horrek era guztietako zatiak ditu: aurrenekoa, lasai-lasaia eta atsegina, eta, bigarrena, bizi-bizia eta gozagaitza.

A R I K E T A K

4. a) Era desberdinetako autoak aurkituko dituzue Bartzelonako automobilaren azokan.
b) Era askotako autoak aurkituko dituzue Bartzelonako automobilaren azokan.
5. a) Interneten denetariko gauzak agertzen dira, arretaz ibili ezik.
b) Interneten gauza ezberdinak agertzen dira, arretaz ibili ezik.
6. a) Film horretako pertsonaia nagusiek antzeko portaerak izan arren, azkenean oso ezaugarri desberdinak zituztela ikusi zen: bata, bihozbera zen eta, bestea, zitala.
b) Film horretako pertsonaia nagusiek antzeko portaerak izan arren, azkenean era guztietako ezaugarriak zituztela ikusi zen: bata, bihozbera zen eta, bestea, zitala.
7. a) Hogei herrialde desberdinetako pertsonak bilduko dira harrera ekitaldi horretan.
b) Hogei herrialdeetako pertsonak bilduko dira harrera ekitaldi horretan.
8. a) Atal bakoitzak jakin behar du zer egin.
b) Atal desberdinek jakin behar dute zer egin.
9. a) Mota desberdinetako ekintzak egingo dituzte.
b) Era bateko eta besteko ekintzak egingo dituzte.
10. a) Iritzi desberdinak onartu behar dira, zenbat buru hainbat aburu daudelako.
b) Era guztietako iritzia onartu behar dira, zenbat buru hainbat aburu daudelako.
11. a) Talde ezberdinek erantzun ezberdinak ematen dituzte.
b) Talde bakoitzak erantzun ezberdinak ematen ditu.

3

Sinonimoak eman:

1. Zoritxarrez Bizkoian barra-barra erabiltzen ditugun hainbat esapide oraindik ere ez dira euskara batuan **zuztatu**.
2. Gai horri buruzko **zertzelada** batzuk emanda, nahikoa izango da.
3. Ekainaren 1ean **iretargi** betea izan genuen.
4. Kontratuak eta **enparauak** idazten eman zuen golz osoa.
5. Horrelakoak entzunda **azforatu** egiten da.
6. Beti eramaten du egunkaria **galtzarbean**.
7. Gaiak **uztartzen** ahalegindu zen, inolako loturarik izan ez arren.
8. Horren **begira** izan ginen ordubete.
9. Bi enpresen arteko **lehia** nabarmen areagotu da azken bi asteotan.
10. Hamargarren urteurrenaren **karietara**, ekitaldi instituzionala egin dute.

SOLUZIOAK

1 Zuzena(k) edo egokiena(k) aukeratu:

- 1. a 13. a
- 2. a 14. b
- 3. a 15. a
- 4. b 16. a
- 5. a 17. a
- 6. a 18. b
- 7. a 19. a
- 8. a 20. a
- 9. a 21. b
- 10. a 22. a
- 11. a 23. b
- 12. a 24. a

2 Zuzena(k) edo egokiena(k) aukeratu:

- 1. b
- 2. b
- 3. a
- 4. b
- 5. a
- 6. a
- 7. b
- 8. a
- 9. b
- 10. b
- 11. b

3. Sinonimoak eman:

- 1. Sustraitu, errotu...
- 2. Xehetasun, zehaztasun...
- 3. Ilargi...
- 4. Gainerakoak...
- 5. Larritu, estutu, urduritu...
- 6. Besapean...
- 7. Lotzen...
- 8. Zain, esperoan, aiduru..
- 9. Norgehiagoka...
- 10. Ondorioz...